

Bandoa

Murrizketak ur, zabor eta estolderiaren tasetan Reducción en las tasas de agua, basura y alcantarillado

Ur, zabor eta estolderiaren tasetan diru-laguntzak izateko baldintzei buruzko araudia 2000ko urriaren 2an onartu zen Pasaia Udalaren udalbatzarrean. Diru-laguntzak eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten familiei gogorarazi nahi diegu laster ekingo diogula agiriak jasotzeari.

Zergadun familia-buruek eskatu ahal izango dituzte tasetako diru-laguntzak, baldin eta haien diru-sarrerek –familia-gunea osatzen duten kide guztien diru-sarrerak batuta–, araudian ezartzen diren mugak gainditzen ez badituzte.

Familia-gunea zenbatak osatzen duten zehazteko aurtengo urtarrilaren 1eko biztanleen udal-errolan ageri diren datuak hartuko dira kontuan; zehazki, eskatzailea erroldatuta dagoen etxebizitzaren datuak hartuko dira.

Familia-gunea osatzen duten guztiek baldintza hauek bete behar dituzte:

- Eskatzaileak diru-laguntza etxebizitza baterako eskatuko duenez, ez du beste ondasun higiezinik izango; betiere etxebizitzaren erakin berean dauden trastelekuak kontuan hartu gabe.
- Pasaia Udalean inolako zorrik ez izatea.

BEHARREZKO AGIRIAK

- Etxebizitzan bizi diren guztien NAREN fotokopiak.
- Familia-gunea osatzen duten guztien diru-sarreraren ziurtagiria; besteak beste, soldatak, pentsioak edo beste diru-sarrera batzuk. Ez dira banketxeek emandakoak onartuko.

Se recuerda que se va a recoger la documentación para la concesión de subvenciones para el pago de tasas por suministro domiciliario de agua y recogida de basuras a los núcleos familiares que cumplan las condiciones que se establecen en la normativa aprobada en el Pleno del Ayuntamiento con fecha 2 de octubre de 2000.

Podrán solicitar la ayuda económica para el pago de las tasas todos aquellos contribuyentes, cabezas de familia cuyos ingresos (incluyendo todos los miembros del núcleo familiar), no excedan los límites que se establezcan en la normativa.

A los efectos de la determinación del nº de miembros del núcleo familiar se tomará en consideración la información obrante en el padrón municipal de habitantes, al 1 de Enero del ejercicio en curso referida a la vivienda en la que deberá constar empadronado el solicitante.

La totalidad de los miembros del núcleo familiar deberá reunir los siguientes requisitos:

- No ser propietario de otro inmueble distinto de aquel para el que se solicita la bonificación, excluyendo de este computo el local destinado a trastero que se encuentre ubicado en el mismo edificio de la vivienda objeto de la solicitud.
- No ser deudor del Ayuntamiento de Pasaia por ningún concepto

DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

- Fotocopia del DNI. (de todos los que conviven en el domicilio).
- Justificante de ingresos provenientes de salarios, pensiones u otros conceptos de todos los miembros del núcleo familiar, no admitiéndose el emitido por entidades bancarias.

- Eskatzailea etxebizitzaren jabea bada, aurreko urteko OHZren (hiri-kontribuzioa) ordainketaren ziurtagiria. Eskatzailea maizterra bada, jabearen izena eta bi abizenak azaldu behar dira.
- Uraren eta zaborraren azkeneko ordainketaren fotokopia.
- Banketxeko kontuaren zenbakia (20 digitu), diru-laguntza jasotzeko izango dena.
- INEMen ziurtagiria, diru-laguntzarik jasotzen ari ote den azalduko duena.

AGIRIAK JASOTZEKO EGUNAK ETA LEKUA

Agiriak urriaren 15etik 26ra bitartean jasoko dira.

TRINTXERPE

- Astelehenetik ostiralera. **Ordutegia.** 15.00etatik 17.00etara, **urriaren 15etik 26ra.**
Tokia: Gizarte Ekintza saileko bulegoetan. Euskadi Etorbidea, 27, behea.

ANTXO

- Astelehenetik ostiralera. **Ordutegia.** 15:00etatik 17:00etara, **urriaren 15etik 26ra.**
Tokia: Gizarte Ekintza saileko bulegoetan. Hamarretxeta kalea, 24, behea.

DONIBANE

- Astelehenetik ostiralera. **Ordutegia:** 15:00etatik 17:00etara. **urriaren 15etik 26ra.**
Tokia: Gizarte Ekintza saileko bulegoetan. San Juan, 58-behea.

OHARRA: Eskaera hau urtero egin beharko da. Aurreko urteetan egin bada, berriro egin behar da.

- En caso de que el solicitante sea propietario de la vivienda, copia del justificante del pago del IBI (contribución urbana) del año anterior; en caso de ser inquilino, nombre y dos apellidos del propietario.
- Fotocopia del último recibo del agua y de las basuras.
- Nº de C/C (20 dígitos) designado para el abono de la subvención.
- Certificado del INEM de estar o no percibiendo o no prestación alguna.

DIAS Y LUGAR DE RECOGIDA DE DOCUMENTACION

La recogida se efectuará del 15 al 26 de octubre, ambos inclusive.

TRINTXERPE

- De lunes a viernes. **Horario:** 15:00 a 17:00 horas. **Del 15 al 26 de octubre.**
Lugar: Oficina de Servicios Sociales. Euskadi Etorbidea nº 27, bajo

ANTXO

- De lunes a viernes. **Horario:** 15:00 a 17:00 horas. **del 15 al 26 de octubre .**
Lugar: Oficina de Servicios Sociales. C) Hamarretxeta nº 24, bajo.

DONIBANE

- De lunes a viernes. **Horario:** 15:00 a 17:00 horas. **del 15 al 26 de octubre.**
Lugar: Oficinas de Servicios Sociales. C) S.Juan n.58-bajo.

NOTA: Esta solicitud deberá hacerse cada año o renovarse en caso de haberla efectuado en años anteriores.

Pasaian, 2007ko urriaren 8an

Alkatea
Sin.: